

# ZOOM® WEBMINTEGIETAN EDO BILKURETAN BALIATZEKO JARRAIBIDEAK ETA INTERPRETAZIOAREN OPZIOA (ITZULPEN KANALAK)

## ERABILPEN JARRAIBIDE OROKORRAK

- Aholkatzen dizuegu mikrofonoa moztea hitz egin behar ez duzuelarik. Kamera ere mozten ahal da jariora apaltzeko
- Aholkatzen dizuegu saioak kasko mikrodon batekin segitzea (interferentzien saihesteko)

## ZOOMI KONEKTATU

Zoom® plataformaren zerbitzuei konektatzeko modu desberdinak badira: ordenagailuko programa, telefono mugikorretarako aplikazioa eta Zoomen web-programa (nabigatzailearen bidez). **Azken honek PC edo telefono aplikazioek baino funtzionalitate gutxiago eskaintzen ditu eta nabigatzailearen arabera aldatzen da : aholkatzen dizuegu ordenagailuko programa edo mobiletarako aplikazioa baliatzea.** Web-programa balia dezakezue bakarrik beste opzioak ez baldin badituzue erabiltzen ahal.

[Gehiago jakin...](#)

📄 **Zoom aplikazioa instalatu edo eguneratu** : [https://zoom.us/download#client\\_4meeting](https://zoom.us/download#client_4meeting)

Aholkatzen dizuegu zuen Zoom aplikazioa eguneratzea, funtzionalitate berri guziak baliatzeko moduan izateko.

[Gehiago jakin...](#)

## INTERPRETAZIOA : IDEIA OROKORRA

**Itzulpenik gabe** egiten diren Zoom® saio arruntetan, kanal bakarra irekia da


- 1- Jatorrizko soinua (Audio Original)

**Itzulpenarekin** egiten diren Zoom® saioetan, 2 kanal irekiak dira

- 1- Itzulpenaren kanala, hizkuntzen hautuarekin:
  - a. Frantsesa
  - b. Euskara (edo besterik, adibide honetan, espainola)
- 2- Jatorrizko soinua (Audio original)

## ITZULPENA AKTIBATZEKO

Administralariak itzulpen kanala aktibatzen duelarik, pantailaren beheko aldean “Interprétation” botoina agertzen da. Hortan klik egin behar da.




## **KANALAREN HAUTAKETA**

Leihoan, bi kanalak argertzen zaizkigu:

- 1- Frantsesa eta espainola (adibide honetan)
- 2- Jatorrizko soinua (audio original)

Itzulpenik behar ez duten jendeek “Rétablir l’audio original” (jatorrizko soinua berriz ezarri) hauta dezakete. Mintzalariak zuzenean entzunen dituzte, baina itzultzailea ez.



## **HIZKUNTZAREN HAUTUA**

Itzulpena behar dutenek beren hizkuntza hautatu behar dute. Hautatu duten hizkuntza “Interprétation” botoiaren lekuan agertuko zaie.